

APIRILAREN 24A.

KLIMAREN ALDEKO EKIMEN GLOBALA



Gaur biztanle guztiok koronabirusaren pandemia eta haren ondorioak jasaten ari garen honetan, agerikoa egiten zaigu zer premiazkoa eta zer alboraezina den indarrak batzea, elkarri lagunduz, gaixotasunari eta osasun eta jendarte mailako ondorioei aurre egiteko. Zaurgarrienak diren pertsona eta taldeek, batez ere, pairatzen dituzte ondorio horiek. Pertsona eta talde horiek, gainera, ez dute soilik osasun krisia jasaten, beren bizimodu, dagoeneko, ezduinduen eskatea eta txarragotzea ere jasaten dute.

Larrialdian gaudela ulertarazten digun ezagutza berak eramaten gaitu erakunde sinatzaileok apirilaren 24ko “Klimaren aldeko ekimen globala” deialdiari eustera, zeren, nahiz eta gaur egun osasun krisia bere gordinean nabarmentzen ari den, krisia bere osotasunean baita krisia eta halaxe tratatu behar da. Baten gordintasunak ez du bestearen larria txikiagotzen. Klimaren krisiak pil-pilean dirau eta Europar parlamentuak, estatuko gobernuak, EAEko eta Nafar parlamentuek eta beste hainbat erakundek klima larrialdia formalki aitortu arren hainbat agintarik ez dute ezagutu ezta onartu ere. Hori gutxi balitz, agintari horiek entzungor egiten diete aholku zientifikoei ezegin errudunen bidez.

Ez da unea pandemiaren aurkako borroka trabatzeko ezta baliabideak borroka horretatik aldentzeko ere. Hori dela-eta, Fridays for Future kolektiboak Global Strike for Future ekimenaren baitan bultzatzen duen nazioarteko deialdiari forma berezia emango dio, eta, horretarako, sareetan izango du erdigunea. Bere helburua gogoetarako deia egitea da, eta gerora zehatzagoak eta irmoagoak izango diren jardueren oinarria ezartzea.

Izan ere, osasun publikoaren krisialdi honek agerian utzi du teknologiak bermatzen zigun erabateko segurtasun-sentsazioa zeharo faltsua zela. Era berean, ikusgai utzi du zein kaltegarria izan daitekeen krisialdi bat, oharkabea eta egoerari eraginkortasunez aurre egin diezaiokeen prebentzio- eta larrialdi-plan nahikorik gabe harrapatzen bagaitu. Krisiaren efekturik dramatikoena agerikoak izan aurretik ez badugu plan bat, ez baditugu baliabide nahikoak esleitzen, ez badihardugu irmotasunez eta ez baditugu zientziak adierazitako gomendioak jarraitzen. Ez badugu irmoki eta azkar jokatzeko, klima-aldaketa bizkor bezain sakona jasango dugu, eta ezinezkoa egingo zaigu egokitzea. Zeharo suntsigarria izan daiteke ekosistema eta jendarte gehienontzat.

Gizadiak aurrekaririk gabeko klima larrialdiari aurre egin behar dio. Eta jardun ere behar dugu bizitza babesteko ardura ezere gainetik jarritz. Biziraupenaren defentsak neurri anbiziotsu eta drastikoak hartzera eraman behar gaitu egoerak gainezka egin baino lehen, hau da, behar diren ekimenak bultzatuz klima larrialdia gure gain hartzera eraman behar gaitu eta ez politikoki egingarri aurkeztzen dizkiguten neurri horiek hartzera. Kudea dezagun klima larrialdia krisi bezala, halaxe baita. Gaur klima larrialdiaren aurrean irmotasunez jokatzeko erdietsiko du giza- eta ingurumen-eraginak apalagoak izatea, nahiz eta eragin horietako asko ez garen arintzeko gai izango.

#KLIMARENALDEKOEKIMENA
#ACCIONGLOBALPORELCLIMA24A



ALIANZA
POR EL CLIMA





Biodibertsitatearen galera handiak eta munduko tenperaturaren emendatzeak argi erakusten digute egoera itzulezinaren ertzean gaudela. Planeta osoa ardurak hartuta dago, gizon-emakumeok eta baita gure jendarteak ere. klima aldaketaren ondorioak dira, besteak beste, baso-sute handien ugaritzea, lurralde epelagoen gaisotasunen zabaltzea, lehorte latzagoak, itsas mailaren goratzea, euriteek eragindako uholdeak, klimaren krisiak sortutako migrazio-mugimenduak...

Eta berdintasun eza. Nazio Batuen Giza Eskubideen eta Muturreko Pobreziaren kontalariak dioenez “mundua klima apartheidean erortzeko arriskuan dago, zeinean aberatsek ordaintzen duten berote, gosete eta gerrateetatik alde egitearren. Bien bitartean gainontzekoak bazter uzten dira sufritzen. Gainontzekoak gehienok gara.

Berotze globala ekoizpen eta kontsumo ereduaren ondorio zuzena da. Eredu honek ezin du pertsonen bizi-beharrak asebate, are prekarizatu eta zaurgarri egoeran jartzen du munduko biztanleen, ekosistemen eta planetan diren gainontzeko izakien zati handi bat. Horrez gainera, espezie bezala gure bizirautea arriskuan jartzen du baliabide naturalak mugagabeko ustiapenean oinarrituz eta herrialde pobretuenetan eta zaurgarrienetan bidegabe joz. Baina krisi honetan zientziak eginbidea erakutsi digu, eta hori ez da ezer gure sistema ekonomikoaren deskarbonizazioa baizik, batez ere, mendeabaldeko jendarte industrializatueta, guk baititugu erantzukizun handiagoa eta baliabide gehiago. Koronabirusaren krisiaren aurrean gelditu da sistema ekonomikoa, eta, berrabiarazi aurretik, berari buruz hausnartu beharra daukagu.

Horren aurrean, erakunde sinatzaileok adierazi nahi dugu, zientziarekin bat eginik, koronabirusak eragindako krisietatik irteteko neurriak babesteko beharrezkin bat gatozela, baina neurri horiek ezin dutela berriro sortu egungo larrialdi ekologiko eta sozialera ekarri gaituen eredu. Ikasi duguna erabil daiteke, eta erabili behar da. Pertsonengan oinarritu behar da, pertsonen aukeretan eta premietan, bai eta gure baliabide naturalen babesean ere. Laburbilduz, irten gaitezen geldialditik, eta eralda dezagun jarduera bai klimatikoki, bai sozialki bidezkoa izango den modu batean.

Jakin badakigu zientziak zer dioten: larrialdia hain da bortitza ezen oso neurri sakonak hartu beharra dagoen; hamarkada honetan egiten dugunak epe labur, ertain eta luzera jasango dugun berotze-maila erabat baldintzatuko du, eta, hori dela-eta, ezinbestekoa da kontsumo jakin batzuk berehala murriztea (energetikoa, kasu), garraio-eredua aldatzea, trantsizio energetikoa bizkortzea eta erregai fosiletatik % 100 berriztagarria, efizientea, isurketa kutsagarririk gabea eta bereziki autokontsumoaren eta deszentralizazioaren ikuspuntuetatik bidezkoa izango den eredu batera pasatzea. Beharrezkoa da, halaber, eskala aldatzea eta globaletik lokalera iragatea, hartara, garraioaren kate luzeak murriztuta planetaren mugekin bat etorriko den elikadura-ereduak balioetsi behar dira. Ahalegin horiek, zientziaren jarraibideen haritik doazenak, gure isurketak bortizki murriztera eraman beharko gintuzkete, bai eta neutraltasuna ahalik eta lasterren lortzera ere.

Horrela baino ezin izango zaie berokuntza globalaren ondorioei aurre egin, eta, aldi berean, jendarte bidezko eta solidariorantz bideratu eta klima-aldaketak elikatzen dituen beste krisialdien arriskuak murriztu.

Manifestua sinatu <https://forms.gle/A24yB9mjhqkWv9e36>

#KLIMARENALDEKOEKIMENA
#ACCIONGLOBALPORELCLIMAZ4A



ALIANZA
POR EL CLIMA



JARDUERA MODU JUSTU ETA JASANGARRIAN BERRABIARAZTEKO JARDUNBIDEAK

Jardueraren ezinbesteko bultzada ez da bidezkoa izanen gizarte eta klima aldetik, oinarrizko bi printzipio biltzen ez baditu:

- Klimaren ikuspegitik, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio garbiak nabarmen murrizteari aurre egitea, adierazpen zientifikoekin bat etorritik eta neutraltasuna ahalik eta azkarren lortuz.
- Ikuspuntu sozialetik, pertsona eta talde zaugarriari erabateko lehenetasuna, haientzat bizi-baldintza duinak bermatuz.

Printzipio horien aplikazioa funtsezko alderdi askotan islatzen da; besteak beste, hauetan:

- Ekoizpen- eta kontsumo-sistemak berrantolatzea, gure gizartearen funtsezko beharrak zehaztuz hauei lehenetasuna emateko.
- Merkataritza eta Inbertsio Itunetan (TCI) islatzen diren edo ez diren politika komertzial, nazional zein internazionalak, birplanteatzea, hurbileko kontsumoa lehenetsiz eta kanpoko mendekotasuna mugatuz, energian zein funtsezko edozein beharretan.
- Biodibertsitatearen galera murrizteko eta ekosistemak lehengoratzeko neurriak lehenestea.
- Gizarte-kohesioa, elkartasuna eta sektore publikoa sustatzea.
- Sektore jasangarrietan enplegua eta lan-banaketa sustatzea, eta aldaketekiko zaugarriak diren sektore eta lurraldeetarako trantsizio justu baterako neurriak hartzea, lanaldia murrizteketa eta konziliazioa bezalako neurrietan aurrera egiteko.
- Zaugarrienak babestea, zaugarritasunaren arrazoia edozein dela ere (mota, arraza, generoa...), oinarrizko errenta baterantz aurrera eginez, inor atzean gera ez dadin.
- Fiskalitatea eta gastu publikoa bat etorriko dira birbanaketa justu batekin eta ingurumena babesteko eta deskarbonizatzeko printzipioekin.
- Estatu gisa, Hego Globaleko herrialdeekin eskuratu dugun zor klimatikoa onartzea, nazioarteko finantziario-funtsei bidezko ekarpen nahikoa eginez, justizia klimatikoaren printzipioen arabera.
- Energia-trantsizioa azkartzea, erregai fosiletatik %100 energia berriztagarriko eredura igaroz, bidezkoa eta eraginkorra izango dena, emisio kutsatzailerik gabe, autokontsumoaren eta energia banatuaren aldeko apustu garbia eginez eta tarifa-sistema bidezkoak erabiliz.
- Mugikortasun-eredua aldatzea, ibilgailupribatuaren erabilera murriztuz eta garraio publikoaren azpiegiturak eta zerbitzuak indartuz, bereziki trenbide konbentzionalarena, bai merkantzientzat bai bidaiarientzat.
- Elikadura eredua aldatzea sistema agroekologikoetan oinarrituta, gertukoak eta kutsatzaile kimikorik gabekoak izango direnak.



#KLIMARENALDEKOEKIMENA
#ACCIONGLOBALPORELCLIMAZ4A



AGIRIA SINATZEN DUTEN ERAKUNDEEK



MADRES POR EL CLIMA
TEACHERS FOR FUTURE SPAIN - PROFES POR EL FUTURO
ACTÚA POR UN MUNDO SOSTENIBLE
AIRE LIMPIO EN LA NOYA DE BUÑOL
ALIANZA POR LA SOLIDARIDAD - ACTIONAID
AMIGOS DE LA TIERRA
AMILIPS
AMYCOS.ORG
ASOCIACIÓN "SEGOVIA POR EL CLIMA"
ASOCIACIÓN "VUELTA AL CAMPO"
ASOCIACIÓN DE MUJERES INTEGRADORAS PARA LOGRAR LA IGUALDAD PSICOSOCIAL
ASOCIACIÓN DESPIERTA
ASOCIACIÓN FONDO NATURAL
ASOCIACIÓN VIDA SANA
ASPA (ASOCIACIÓN ANDALUZA POR LA SOLIDARIDAD Y LA PAZ)
ATENEO DE GRANADA
BUTROI BIZIRIK EN TRANSICION
CA LA DONA ESPAI D ACCIÓ FEMINISTA
CGT
CGT-LKN EUSKAL HERRIA
CIDES CENTRO DE INICIATIVAS DE DESARROLLO SOSTENIBLE
COLECTIVO ECOLOGISTA DE AVILÉS
COLECTIVO RENTA BÁSICA
COMISIONES OBRERAS (CCOO)
COMITÉ ANTINUCLEAR Y ECOLOGISTA DE SALAMANCA
CONFEDERACIÓN INTERSINDICAL

CONGECAR - COORDINADORA ONGD LA RIOJA
COORDINADORA ANDALUZA DE ONGD
COORDINADORA DE ONGD-ESPAÑA
COORDINADORA ECOLOGISTA D'ASTURIAS
DESARMA MADRID
ECOA))) GLOBAL
ECOLOGISTAS EN ACCIÓN
ECOOL REVOLUCIÓN SOLAR
EDUCO
EKOLOGISTAK MARTXAN
ENTREPUEBLOS/ENTREPOBLES/ENTREPOBOS/HERRIARTE
ESK SINDIKATUA (EUSKAL HERRIA)
FRIDAYS FOR FUTURE DE: ALCORISA, ALICANTE, ALMERÍA, ASTURIAS, BARCELONA, BILBAO, CÁDIZ, CARTAGENA, COMPOSTELA, CÓRDOBA, DONOSTIA, GASTEIZ, JAÉN, LEÓN, MADRID, MÁLORCA, NATARÓ, PAMPLONA, SEVILLA, TENERIFE, VIMARÓS
FUNDACIÓN ECOLOGÍA Y DESARROLLO (ECODES)
FUNDACIÓN GLOBAL NATURE
FUNDACIÓN RENOVABLES
GREENPEACE ESPAÑA
GUEÑES BIZIA
GURE ENERGIA
INTERSINDICAL VALENCIANA
INSTITUTO POR LA PAZ Y LA ECOLOGÍA DE MÁLAGA
LA RIBERA EN BICI
LA CORRIENTE
LUNES LILAS NAVARRA
MOVIMIENTO IBÉRICO ANTINUCLEAR

NATS (MOVIMIENTO ASAMBLEARIO DE TRABAJADORES-AS DE LA SANIDAD)
ONGAWA
ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK
OXFAM
PERIFÉRIES DEL MÓN UNIÓN SINDICAL OBRERA (USO)
PLATAFORMA DOMINICANA DE AFRODESCENDIENTES -AFROSRD-
PLATAFORMA CARRILBICI CASTELLANA
PLATAFORMA POR UN NUEVO MODELO ENERGÉTICO
PLATAFORMA POR LA DESOBEDIENCIA CIVIL
PLATAFORMA SALVEMOS NIJARES
PLATAFORMA UNITARIA CONTRA LA AUTOPISTA ELÉCTRICA
REAS NAFARROA
REBEL·LIÓ O EXTINCIÓ VALÈNCIA
RED ECOFEMINISTA
RED IBERICA DE ECOALDAES. RIE.
RIVAS AIRE LIMPIO
SEO/BIRDLIFE
SIEMPRE DISIDENTE
SOLIDARIDAD INTERNACIONAL ANDALUCÍA
SOM ENERGIA
SUSTENTA
THE CLIMATE REALITY PROJECT
UNIÓN DE SINDICATOS DE TRABAJADORAS Y TRABAJADORES EN ANDALUCÍA (USTEA)
UNIÓN GENERAL DE TRABAJADORES (UGT)
UNIÓN SINDICAL OBRERA (USO)
WWF ESPAÑA
ZALLA BAI

#KLIMARENALDEKOEKIMENA
#ACCIONGLOBALPORELCLIMAZ4A



ALIANZA
POR EL CLIMA

